

Literatura

Dirua galgarri
Mariano Izeta

Euskaltzaindia,
Baztango Udala
2015



Moralkeria da delitua

TXALOTZEKOA da Mariano Izetaren *Dirua galgarri* nobela berriz argitaratzeko ideia, kasik sen arruntaren kontrako apustua baita euskarazko genero beltzaren genesiari paper berria ematea. Euskaltzaindiak eta Baztango Udalak egin dute edizioa eta arratsalde bakarrean irakur dezakezu, 100 orrialdera iristen ez den istorioa erraz ulertzeko maneran baitago idatzia, kontakizuna erabat lineala da eta ekonomia berbala du ezaugarri nagusi.

Ez nion Izetaren nobelari eskatzen “ona” izatea. Hutsuneak baditu, gauza asko faltan sumatuko dituzu, bai eszenetan, bai pertsonaiak eraikita dauden moduan, baita istorioaren korapiloetan ere. Baina 1962an idatzia da, ez litzateke bidezkoa “Raymond Chandler baztandarra” izan zedila eskatzea egun eskura daukagun almazan literariorik gabe eskribitu zuenari.

Hain erraz pasatzen ez dena narratzailearen posizio ideologikoa da. Nobela moralizatzailea dela esatea ez da gehiegikeria, ezta istorioa kontatzen duen ahotsa boterearekin erabat lerratzen dela esatea ere. Adibidez: lapurreta baten ondoren polizia “ohiko susmagarriak” atxilotuko ditu. Komisarian “merezi zuten zanpaldi bat” jaso dutela eta ondoren giltzapean sartu dituztela irakurtzen duzu (5. kapitulua) eta ondoren aske uzten dituztela. Baina bigarrena gertatzen denean narratzaileak ez die errugabetasunik ere aitortuko –gaizkilea gaizkile da, kausa honengatik ez bada, beste zerbaitengatik–.

Delituaren benetako egilea argitzen denean ere, “etsaiaren tentazioa” da lapurretari ematen zaion kausa. Edo, bestela, lanik egin gabe bizi nahia. Ebasleak alferra delako ebasten du, ez dago beste motiborik. Nagusien eta morroien arteko desberdintasun ekonomikoak gauza naturalizat jotzen dira, lapurreta bezalako ordena-haustea zuzendu beharreko desbideratze gisa ulertuz. Eta aparteko kapitulua mereziko luke emakumeek betetzen duten rola aztertzeak.

Gauza guztiok ez ditugu seinalatzen bestelako pentsamolde politikoak babesten ditugulako bakarrik: narratzaileak egindako aukera horiek fikzioari kalte egin zioten, hain argi epaitu baitzituen pertsonaiak, ezen ezustekorako tarterik gabe laga zuen kontakizuna –balore moral edo ideologikoen transmisioa istorioaren aukeren ginetik jartzen duten idazleei usu gertatzen zaien moduan–.

Izetaren lanak zabalduetako genero beltzaren bidean aurreratu da ondorengo hamarkadetan, batzuen ustez gehiago bestere ustez baino. *Dirua galgarri* berrirakurtzea ariketa interesgarria da, abiapuntua zein izan zen jabetzeko. 1960ko hamarkada hartan gure nobela beltzek ere praktika txintxoan manual baten itxura handiegia zuten. Zer edo zer espabilatu dugu. ■

Gorka Berezartua Mitxelena

ATE IREKIEN ASTEA
Martxoaren 23tik 27ra

23^{et} 24
Oinarriko ikasketei buruzko hitzaldia
19:00 ESCUDERO

25
Ikasketa Profesionalen buruzko hitzaldia
18:00 ESCUDERO

27
ostirala 17:00 etatik aurrera

ENTZUNALDIAK
Kontserbatorioko ikasle eta taldeen
DSS 2016 gunean

Musika Kontserbatorio Profesionala
FRANCISCO ESCUDERO
www.conservatorioescudero.org